

EXOTOPONIMIAZKO PROBLEMAK KAZETAGINTZAN

Gorka Jakobe Palazio

Izen berezizat joak diren exotoponimoak ahoskatu egitean eta izkiriatzean kazetariak ukan ohi dituzten problemak dira aztergai artikulu honetan. Azken bolada honetan Euskaltzaindian ere interes berezia sortu da gai honen inguruan. Interesa areagotu egin da euskarak normalizaziorako urrats handiak eman baititu hainbat arlotan: Euskal Herri osorako den euskara hutsezko kazeta bat sortu da, entziklopedia orokor bat argitaratu da berrikitan, bertze entziklopedia batzu egitear, estilo-liburuak ikusentzuteko komunikabideetan eta prentsa inprimatuan... Ekimen guzti hauei, gai honi lotuta izkiriatu diren bi liburu eta hainbat artikulu gehitu behar zaizkie.

Kazetari euskaldunek munduko geografia-izen arrotzak euskaraz nola izkiriatu/ebaki behar dituzten eta nola transkribatzen diren da arazoa. Alfabeto latinoan erabiltzen ez duten hizkuntzetatik datozkigun exotoponimoak sarritan era batez baino gehiagok ikusten dira izkiriaturik. Euskal hizkuntzan, maleruski, exotoponimia handian, hots, estatu-izenetan ere nabaritzen da ainitzetan erizpideak diferenteak direla. Gainera, Iparraldean eta Hegoaldean ezezik, Egunkariaren eta EITBren artean ere ikus daitezke diferentziok.

Gaur egun daramagun bizitza ez da inola ere gure arbasoek zeramatena. Azturak eta ekanduak bestelakoak dira eta teknologiaren garapenak ainitz gauza erdiets dezagun ekarri badu, badira bertze gauza on batzu, iraganekoak direnak eta egun faltan ditugunak. Hauetakoa bat lan pausatua da, presarik gabe eginikoa, bertze garai bateko artisauek egiten zituzten beharrak, emeki-emeki eginiko artailuak, estu eta larri ibiltzeke eginiko literatura-lanak, kasurako.

Tamalez, egun gauza ainitz presaka eta arinki burutzen da, egutegiak eta erlojuak gure bizitzako epeak, ritmoa eta konpromezuak finkatzen dituzte. Produktuak samaldaka ekoiztu beharra edo gauza bera dena, masa-kontsumoa dela eta, ohiturak bestelakotu egiten dira denboraren poderioz.

Izan ere, denborak mugak jartzen ditu edozein lan burutzeko, presaka eta aski hausnartzeko paradarik gabe egiten dugunean lardaskero-plantak egiten ditugularik. Lardaskeria ere bada kazetariak maiz egiten dutena. Beronen errua, haatik, gizartearen baitan erroturik dagoen eta erran berri dudan ohitura txar horren baitan dago. Ontsa hausnarturiko eskulangintzaren aitzinean, hitzetik hortzera erraiten eta supituki izkiriartzen den deslana dugu. Eta hau diot, inprobisazioak dituen meritoak mesprezatu gabe noski; bertsolariek barka diezadaten!

Mariano J. Larra idazle eta kazetari espainiarra ere konturatu zen presak kazetal hizkuntzari eta bere edukiari zekarkien kalteaz. Honela zioen iruzkinak eta kritikak egiten zituen

Larra madrildarrak 1835ean bere artikulu-bildumaren aitzinsolasean:

“Kazeta batean izkiriartzen den prezipitazioak eta erredaktore eta irakurleengan diren eraginek sarritan, argitara atereak diren zenbait artikuluk onespren guti ukan dezaten sortzen du, odol hotzez eta geroago aztertuak direnean, kritikarik indulgentea jasan ezin lezaketelarik”.

Eta presagatik hain zuzen, kazetariak sarriro teletipotik iritsitako albisteen euskarapenak egin nahi lituzketen bezala geratzen ote diren zalantza agertzen dute. Egia erraiteko, kazetariak lan franko dute informazioa ondo osatzeko datuak lortzearekin. Berauen hizkuntza-erabilera traketsa, ordea, euskal irakurle/entzuleek egin ohi duten kritika ohizkoa dugu.

European zein Ameriketara bada kezka handia kazetal hizkuntzaz. Komunikabideen hedakuntzak kezka hau areagotu egin du eta honez gero jakitun eta profesore ainitz ari dira kazetariak erabiltzen duten lengoaia ikertzen eta arreta pizten okerrak eta hutsak zuzen daitezen eta komunikazio eraginkorragoa ardiets dadin. Euskal Herrian, jakina, kezka hau bertze herri batzutan baino handiagoa dela erranen nuke. Estilo-liburuak, idazgeletan erabiltzen diren arauak, hedabideetako hizkuntza-arazoak estudiantzeko eratzen diren batzordeak eta abar, kezka honen adierazpide baino ez dira. Hitz mailegatuak, kultura-hitzak, anglizismoak, problema fonologikoak, akronimoen deklinabidea... guztiak estudiagai eta

euskaltzainen interesa ezezik kazetagitzaiz aritzen diren lizentziatu eta profesionalen arreta sortu behar dutenak ere bai.

Artikulu honetan exotoponimoen transkripzioak edo moldatzeak kazetagitzaiz sortzen dituen problemei buruz ari izanen naiz, problemak geografia-izenak izkiriatzean (ortografian) eta ahoskatzean (ortoepeian) agertzen zaizkigularik.

Jakina denez, egun ez da nagusitu orokorrekoa izan beharko litzatekeen nazioarteko sistema fonologiko bat ere, fonemen eta grafemen transkripzioa egiteko balio liezagukeenik. Linguistikan jakitun ez diren pertsonentzat eta komunikabideetako kazetarientzat alfabeto fonetiko bat bultzatzea, hizkuntza diferenteetan erabil litekeena, biziki eskertzekoa litzateke exotoponimiaren esparruan dauden kriterioak batzeko. Alfabeto latinoak ez duten hizkuntzen transkripzioa, baita hizkuntza agrafoena ere noski, diferenteeki egiten da gureak bezala grafema latinoak dituzten hizkuntzetan, ingelesean, alemanean, frantsesean eta abarretan. Nazio Batuen Erakundeak, NBEk, zenbait arau eman zituen problema hau konpontzeko; ahalegin hura alferrikakoa izan zen baina. NBERen printzipio hauei buruz Alberto Gómez profesore espainiarrak ondokoa diosku¹:

“Principios que, por ser respetuosos con las preferencias de la nación a que pertenece el nombre propio, no tienen en

cuenta la conveniencia de los países que lo han de recibir; de hecho suponen una abrumadora generalización de latinizaciones gráficas basadas en equivalencias fonéticas con el inglés”

Baina, honetan sartu aurrez, ikus dezagun geografia-izenak nola sailka daitezkeen, erabakiak hartzeko orduan lagungarri izan daitekeena.

Lehenbizi, exotoponimo erabilienak edo maizenik ageri direnak ditugu, hobeto ulertzeko, *exotoponimia handia* osatzen dutenak. Bertze maila batean, osterak, *exotoponimia txikikoak* ditugu, maila honetan estatu-izenak ez direnak oro, salbuespenak salbuespen, sartuko ditudalarik.

Ene iduriko, gauza bat argi ukan behar dugu hastapenetik: bertze hizkuntza ainitzetan gertatzen den bezala, euskara, batzutan, molde bakarrari amore emanik, bertze formarik ere onartu beharrean izanen da. Denboraren poderioz, alta, baliteke amankomuneko joera bakar bati atxekitzea.

Prensa izkiriaturako kazetariak zein ikusentzuteko komunikabideetakoek zalantza ainitz ukaiten dituzte teletipotik edo dena delakotik iristen zaizkien geografi-izenak euskaratzeko orduan. Gehienetan eta honi buruzko arau edo libururik ez zegoenez, errazenera jotzen zen, hots, ikasitako erdal formak hartu eta euskal ortoepeira moldatu. Eta hau gertatzen ez zenetan larriagoa dena egiten zen: frantsesezko zein gaztelaniazko

exotoponimoak bi hizkuntza hauetan izkiriartzen diren bezalaxe jarri alegia. Azkeneko honek euskarak jasaten duen diglosia nola goititu den adierazten digu.

Xabier Mendigurenek eman zuen lehenbiziko urratsa exotoponimoen arlo honetan noiz edo noiz zirt edo zart egin beharko zelakoan. Orduz geroztik urte zenbait iragan ondoan, Elhuyar elkarteak «*Munduko leku-izenak*» deritzon liburua plazaratu zuen, lan mardula eta interesgarria kanpoko geografia-izenak finkatzeko. Euskal Herriko onomastika eta toponimiatiak landa eta masa-komunikabideek eskatuta, Elhuyarkideek lan pausatua eta hausnartua burutu dute. Lan hau eta oraindik dauden ezadostasun zenbait aztertuko ditut ene artikulu honetan.

Euskal Herrian, bi joera egon dira exotoponimoak izkiriartzeko eta erraiteko orduan. Lixter hauek, tamalez, geografiak edo nahiago bada desagertzeaz dagoen mugak sortu ditu, Hegoaldekoa eta Iparraldekoa. Honexegatik, interesgarri deritzot orri hauetara Ipar Euskal Herrian exotoponimoak nola izkiriartzen diren ekartzeari. Honetarako, *Herria* astekaritik harturiko etsenplu zenbait agertzen dira eranskinean.

Ikusten denez, Iparraldean exotoponimoetan aldakiak badira izan Hego Euskal Herriko izkiriartzeko moldearekin erkatzen baditugu. Igartzekoa dateke Syria, Thailandia, Egipto etab. Xabier Mendigurenek gertaturiko zerrendan, Euskaltzaindiak eskatuta *Eusker*a aldizkarian agertu zen hartan, era honetantxe agertzen

zirela euskararen tradizio zaharrari jarraikiz, ingeles, aleman eta frantses formen antzera. Elhuyar-ek bertze bide batetik jo du eta Eguzkitza eta Palazio-*ren Geografidatutegian* askatasuna uzten zaie kazetariei bata zein bestea hauta dezaten, Syria zein Siria, Thailandia zein Tailandia... alegia. Euskaltzaindiak oraingoz ez du bide bakar baten aldeko postura argia egin, eta beraz, zilegi dateke norberak egitea hautua. Baina utz dezadan grafema problematiko hauen arazoa geroko atal baterako.

Dena den, erran daiteke euskal hizkuntzan bolada honetanxe ari garela sortzen tradizioa toponimia arrotzean, gure klasikoek gehien bat inguruko toponimoak erabiltzen bait zituzten. Egun exotoponimotzat joak diren batzu, Jaka, Jeruntze, Akize eta Errioxa, kasu², atzerritar forman iritsi eta kazetariek euskal formaz ahantzirik teletipotik heldu bezalaxe izkiriatu/erraiten dituzte, hots, Jaca, Geronce, Dax eta La Rioja. Eta kasu hauetan ez duke balio ulergarritasunaren faborez aipatu ohi den akiakula horrek. Errioxako Autonomi Elkarteak dela zehaztu nahi denean elkartearen izen ofiziala izkiriatu/erraita baino ez da; Arabakoaz ari garenean arabar adjektiboa jarriz gero, problema erraz-erraz saihas daiteke. Honela egin ezik, Ipar Euskal Herriko kazetariek mugak/trabak jarriko dizkiete Hegoaldekoei, eta alderantziz.

Bestalde badira zenbait herri eta hiri nagusi, azken urteotan izenak aldatu dituztenak. Sozialismo errearen porrotaren ondoren gertatu

diren geografia-izenen aldaketaz landa, sistema politiko honetan izan ez diren beste exotoponimo-aldaketa zenbait ere jazo dira. Adibide ezagun bat jartzearen, ekar dezadan hona 1989. urtean EFE prentsa-agentziak igorritako gaztelaniazko albiste hau euskaraz jarria³:

Birmaniak **Myanmar** izena ukanen du orainengoitik.

Rangun, ekainak 19 (EFE). Birmaniako agintari militarrek **Birmania** eta **Rangún** hitzak edeki dituzte beren herriaren eta hiriburuaren izendapen ofiziala egiteko.

Hemendik goiti herriaren izen ofiziala «**Unión de Myanmar**» izanen da, birmanieraren ahoskerari hobeto doakion hitz bat erabiliz.

Langileriaren Egunkaria-k, orain dela ia urtebete lege martziala indarrean jarri zenetik herrian editatzen den kazeta bakarrak ere erran zuen aurrerantzean hiriburuaren izena **YANGON** izanen dela...

Ikusten denez, Birmaniako agintariak **Myanmar** eta **Yangon** izenak bultzatu dituzte, eta epe luzera izanik ere, izen hauexek hedatuko dira. Nahiz eta DEUko Alberto Gómez Font profesoreak izen berri hauek onartu ez, honez gero ikus daitezke liburutan eta hainbat pertsonaren ahotik entzun ere daitezke. Birmania eta Rangun izenek ere entziklopedia eta liburutan agertu behar duten arren, Ceylan/Zeilan estatu-izenarekin jazo bezala (egun Sri

Lanka), izen ofizial berriek ordezkatuak izanen dirateke bertakoek kontrakoa erabaki ez dezaten arte. Horregatik ez zait egoki iruditzen, bai Elhuyar-ek, bai Egunkariaren *Estilo Liburuan* Birmania formaren sarrerak ukaitea lehentasuna, Elhuyar-en zerrendan **Myanma** formak eta *Estilo Liburuan Myanmar* sarrerak Birmania-ra baikaramatzate. Egun, gaztelaniaz munduan argitaratu berri diren almanakerik onenetan, berriz, **Myanmar** sarrera eriden behar da estatu honi buruzko datuak kausitzeko.

Izan ere, nagusitzen diren exotoponimoek, beren nazioetan onetsitakoak izan behar dute. Leningradeko bizilagunek **Sankt Peterburg**⁴ izena berriz ematea erabaki badute kazetariak izen berria erabili behar dute. Izena berriki aldatu dieten SESB ohiko bertze hiri zenbait, Gorki, Svierdlovsk eta Kalinin dira, egun, Nizni Novgorod, Jekatierinburg eta Tvier izenak hartu dituzten hiriak hain zuzen ere.

EFE prentsa-agentziak eta El País kazeta madrildarrak harturiko erabakiak askotan ez datoz bat. El País-en estilo liburuan Sri Lanka izena, esaterako, onartu egiten da, mako artean Ceilán ere joan beharra egonagatik. Bestalde, Kamputxea/Kambodia estatu-izenekin ere izan dira bai aldaketak azken urteotan; Kamputxea (Campuchea ingelesez) izen ofizialtzat joa izan ostean, 1989. urtean Kambodia (Cambodia ingelesez) berriro ofizial bihurtzea erabaki bait zuten.

Dirudienez, espainiarrek ingelesek egiten ez duten bezala eta berauek horrela egiten ez dutelako-edo, beste bide bat hartu dute, bide honetatik abiatzeak gaztelaniari problema frango ekarriko badio ere. Ez zait bat ere egoki iruditzen, adibide batzu aipatzearren, Hawaii, Jerusalem, Harbin, Ndjamena, Speyer exotoponimoen ordeztu Hawaii, Jerusalén, Jarbin, Nyamena, Espira erabiltzea. Gaztelera lixer honi atxekitzea, alta, ez da batere arraroa, gogotan badugu hainbat hitz mailegatu arrunt ere berdin erabiltzen/bilakatzen direla komunikabide espainiarretan: *ping-pong, play-back, standard, judo, entrecote, whiskería, bazooka* hitzen ordeztu, *pimpón, previo, estándar, yudo, entrecó, güisquería, bazuca* forma ortografikoak hobesten dira.

Izan ere, hauxe da Espainiar estatuan gehien saltzen den egunkariak egin duen hautua, maileguak diren hainbat exotoponimo eta hitz arrunt zaku berean sarturik, antza, gaztelaniak eskatzen duen adaptazio fonetikoari amore emanez.

Berriki argitaratu duten Euskaldunon Egunkariaren *Estilo Liburuan*, bestalde, hitz hauek honela agertzen dira: ping-pong, play-back, estandar, judo, entrekot eta bazoka. Mailegu zenbaiten jatorrizko grafia errespetatuagatik, bertze batzutan muzin egiten zaie y bezalako grafema arrotzei (Euskaldunon Egunkariaren *Estilo Liburuan* **derbi** hobesten da **derby** formaren kaltetan, El Paísean ez bezala).

Azken finean, problema hauek zeretik datoz: oraindik orain (epea engoitik luzea izanagatik, 20-30 urtekoa guttigorabehera) gure hizkuntzan agertu diren bi korronteen arteko burrukatik, Ibon Sarasolak ontsa ezagutzen duen bezala⁵, bertze elkargune bat ukan dutelako exonimiaren arlo honetan. Grafema zenbaiten erabilera urria ezin da akiakula bezala jarri gure hizkuntza nazionala, Hegoaldekoa eta Iparraldekoa, gaztelaniaren kalkoa den joera sinplista batetik abiarazteko. Bide honetatik joz gero, eta arrazoi berberak aplikatuz, aurki, *bos, maia, zer, jeologia, agenda, San Petersburgo...*⁶ izkiriatu beharko ditugu, hots, **j** eta **g** grafemak ikustean ez dugu bereizketarik eginen ebakitzean, **i** eta **l** noiz izkiriatu behar diren ez dugu asmatuko, hitzen bukaerako kontsonante-multzo guztiak galduko ditugu (st - s, rk - r) eta abar, anabasa alegia. Baten batek erran dezake hizkuntzaren bizi-prozesuak berak sortzen duela hori, eta neurri baten badute arrazoiaren parte bat. Nik, alta, kazetariak egun hizkuntza landutzat ezagutzen duguna erabil dezaten nahi nuke, baita ikusentzuteko eta prentsa izkiriaturiko komunikabideetako kazetagitza joera bakar bati atxekitzea ere. Euskadi Irratian, adibidez, oraindik ez da problema honi buruzko hausnarketa gehiegirik egin, bertako albisteak entzutean nabaritzen baita joera sinplista. Sarriro erdal forma hobesten da Hegoaldeko jendearen mesedetan, bertzetan Elhuyar, Euskaldunon Egunkariak eta abarrek bultzaturiko formak ahoskatzen dira.

Bestalde, exotoponimiaren afera honetan kontua ez da zapalduta dauden hizkuntzetan erabiltzen diren forma guztiak onestea, bertzerik gabe hobestea, erran nahi baita, “guztiak edo bat ere ez” Ibon Sarasolak proposatzen duen bezala. Forma batzuk arrakasta erdietsiko dute eta bertze batzuk ez. Gaur egun, adibidez, Gerona edo Lerida (tiletik gabe, antza) proposatzeak funtsik ez duela uste dut. Hizkuntzak, gutti-guttiengo batek soilik erabiliak badira eta errealtate sozialetik hagitz baztertuta badaude, normala izan daiteke hizkuntza menperatzailearen forma agertzea. Eta zaku honetan bablea, Eire edo Irlandako hizkuntza, Eskoziako Gohierrialdeetako hizkuntza keltikoa etab. sartuko nituzke. Honek, alta, ez du kentzen kazetariak, nahi izanez gero eta forma ezaguna zein den klarki azaldutakoan, bertze era hori erabili ahal dezan.

Exotoponimia handiko izenetan jatorrizko grafema eta tilet zenbait aldatzea/kentzea zilegi dela dirudien arren, exotoponimia txikikoetan bertze bide bat urratu behar dugulakoan nago. Ingelesek bezala, Córdoba, Cuenca, Palencia eta abar erabiltzeari ontsa deritzot, euskal tradizioan eta azken hamarkadetako erabileran joera hau nagusitu delako. Gaztelaniaren eraginagatik izanik ere, Espainiar estatuko probintzia-izenetan ez dut uste txarra denik jatorrizko grafia errespetatzea, batez ere gogoan badugu exotoponimo txikiak direla eta alfabeto latinoan duen hizkuntza dela berau. Zenbait kasutan, alta, aldaketak egin ditzakegula uste dut, hala nola, Bartzelona, Madril, Valentzia, Sibilía,

eta apika, Euskal Herritik gertu edota aintzinako Baskoniako parte ziren hiri zenbaiten izenak, Kixoi, Oska, Santandere, Aramitze... Beste batzu, ordea, zalantzazkoak dirateke, Gordova (Córdoba, Andalusia), Done Jakue (Santiago, Galizia). Ene ustez, alta, Segobia, Sebilla, Menorka, Kadiz etab forma izkiriatuak hobestea, Ibon Sarasolak proposatzen duen bezala⁷, arras desegokia da.

Zeinu diakritikoak

Euskal idazleok tileten aldeko joerari atxeki behar diogula uste dut. Zeinu diakritikoek informazio handia ematen dukete⁸. Elhuyarkideek ondoko aburua agertzen dute arazo honetaz, zeinu hauek informazioa ematen dutena ezagututa: “horregatik, euskal grafian arraro gertatu edo gure kultura bisualean oinarri handirik ez dutenez, zeinu diakritikoak kendu eta letra bereziak ordezkatzeari hobetsi da”. Adibide bat ipintzearen, serbokroazierazko Korcula irla-izena iristen bada teletipotik, kazetari edo hizlariak zalantza handia ukan dezake ebakitzeko orduan, eslaviar hizkuntza hau menperatu ezik eta izen honen c grafemari \check{c} zeinua falta zaiola jakitun ez badago, /korkula/, /kortsula/, /kors´ula/ edo /korts´ula/ ahoska dezake, bertakoek egiten ez duten moduan, zeren Cristobal Colomb sortu omen zen irlaren izen hau ondoko eran izkiriatu/ahoskatu behar baita: Korcula, /kortʃula/. Elhuyar-en geografia-izendegian **korcula** formaren hautua egiten da euskarak beregana dezan, aleman, ingeles eta gaztelaniazko formak jatorrizkoak diren bitartean, hots, **Korčula**.

Hortaz, Córdoba, Besançon, Münster, Bessèges eta abar beren horretan utzi behar dituzkegu. Datu hauek, gainera, nik kontsultaturiko entziklopedia orotan eriden ditut. Gaztelaniazko eta frantses tiletei dagokienez, exotoponimo handietan izan ezik, gainontzekoetan izkiriatu egin behar ditugula uste dut.

Ameriketako geografia-izenetan ere aplika daiteke lixter hau. Hortaz, *Perú* izkiriatu beharrean *Peru* forma tiletgabekoa erabiltzen da. Hagitz erabiliak ez diren exotoponimo txikietan, aldiz, beharrezkoa dateke tiletak jartzea: Mérida (Venezuela), Holguín (Kuba), Medellín (Kolombia)...

Zeinu ortografikoak edo tiletak jarriz gero, ortoepian ere asma lezake kazetariak, gure lanbidean jatorrizko ahoskerak errespetatzea eta ahoskera hauei hurreratzea helburu ukan behar baitugu. Ipar Euskal Herriko kazetari batek *Merída-tik* edo *Meridá-tik* erraitetik itzur liteke tileta agertuz gero.

Deklinatzeko orduan ere mantendu egin beharko lirateke tiletak, exotoponimo hauek gehienetan, oso erabiliak ez direnez, marra baitaramate. Deklinabide-atzizkia marrarik gabe loturik doanean ere tileta jartzearen aldekoa naiz.

Euskaran hagitz erabiliak ez diren grafemen arazoa

Badira zenbait grafema, azken urteotan kazetarioi problemak eta ezadostasunak ekarri dizkigutenak. Ondoren, problema hauek zein diren

eta ene aburua zein den azaltzen saiatuko naiz.

Lehenbizi, y grafema dugu. Jakina denez, Ipar Euskal Herrian letra hau bere horretan lagatzen da estatu-izenetan. Hortaz, Syria, Libya, Egipto eta Malaysia formak izkiriaturen dituzte, eranskineko orrietan agertzen den bezala. Xabier Mendiguren-ek 1975ean *Euskera* aldizkarian argitaraturiko zerrendan ere forma hauek agertzen dira. Azken urteotan, aldiz, «Hegoaldeko» dei genezakeen joera nagusitu da EAE eta Nafarroako prentsan eta liburugintzan. UZEI eta Elhuyar-ek bultzaturik, Siria, Libia eta Egipto formak hobetsi dira (Malaysia exotoponimoa, ostera, y letraz agertzen da *Munduko leku-izenak* liburuan). Nik, alta, Iparraldeko tradizioari atxekitzea proposatzea hobetsiko nuke. Xabier Mendiguren-ek Hegoaldeko jendearentzat ere urraturiko bide honek, alde batetik, nazioarte mailan korritzen diren eta usuen agertzen diren formekin, eta bestetik, exotoponimoak ez desitxuratzeko joerarekin bat eginen luke. Honela ez genuke zertan Malaysia salbuespen bezala jarri behar eta hurbilago geundeke, baita gure seme-alabak ere, azken urteotan elkarri ulertzeko nagusitu den ingeles hizkuntzatik, baita frantsesetik ere, jakina.

Bigarrenik, **p** eta **b** aurreko **m** grafemaren inguruko eztabaida dugu. Kontua zera da: Kolombia ala Kolonbia, Kambodia ala Kanbodia, Kamputxea ala Kanputxea, Mozambique ala Mozanbike, nola izkiriatu behar den. Xabier Mendiguren-en zerrendan, *Euskera*

aldizkarikoan, **m** izkiriitzea hobesten zen exotoponimoa ez desitxuratzearren. Gainera, **m** jartzeko bertze argudio bat bezala, alemaniarren joera aipatu ohi da, hizkuntza alemana duten herrialdeetan *Kolumbien* forma erabiltzen baita. Arazo honetan, berriz, Ipar Euskal Herriko egungo joerak **n** grafema izkiriitzearen aldeko postura egiten du (Kolonbia). Afera honetan zirt edo zart egitea erraza ez den arren, ene ustez m-z izkiriitzea hobetsi behar genuke, ahoskatzean egiten dugun soinua transkribatzen den bezala, alegia.

Hirugarrenik, **v** letraren arazoa aipatuko nuke. Exotoponimiazko arazoetan murgildu garen gehienok grafema hau bere horretan uzteko gomendioa egiten dugu ia aho batez. Egun, letra honek ez duke problemarik planteatzen euskaran. Bai Elhuyar-en zerrendan, bai Geografidatutegian, bai Hiztegia 2.000 izenekoan, bai Luis M. Mujika-ren hiztegian ere, Txekoslovakia, Vanuatu, Volta Garaia... formak agertzen dira. Letra honekin segituz, SESB desagertuaren izendapenazko polemika ortografikoa plazaratu da berriki. Xabier Kintanak *Euskaldunon Egunkarian*, Elhuyar-ek plazaraturiko *Munduko leku-izenak* liburuaren inguruan idatzitako kritiken artean, eta Elhuyarkideek emaniko ihardespina gogotan hartuta, ene aburuz, **v** letra **sovietar** kasuan ere errespetatu behar genuke. Elhuyar elkarteak emaniko ihardespina **soviet** hitz mailegatua hitz arrunt irentsizat jo izatean datza, ene ustez, kriterio okerra dena hain zuzen ere. Kiriliko errusiarretik transkribaturiko **soviet** (*kontseilu* euskaraz) hitza ez da inola

ere hitz arrunta gure hiztegian, ez da oso erabilia eta nik neuk aparteko zaku batean sartuko nuke jatorrizko grafemak (alfabeto latinozkoak) mantentzea hobetsi behar genukeen hitzen kasuan. Futbol eta honelakoak onetsita ere, bertzeekin diferenteki jokatu behar dugu, ingeles, frantses eta aleman hizkuntzek urraturiko bidetik alegia. **Sobiet** izkiriitzea, beraz, ez dateke egoki.

Laugarrenik, **dj** letrabiko grafemaren inguruko problema dugu. Kazetariak maiz zalantza handiak dituzte Fidji ala Fiji, Djibuti ala Jibuti, Djakarta ala Jakarta... Ingelesak, esaterako, Jakarta zein Djakarta, bata zein bestea erabiltzen dute. Baina, orohar, dj-dun grafia usuago agertzen da. Frantsesek eta alemanek ere dj-z izkiriatu ohi dituzte horrelako exotoponimoak. Beraz, euskarak ere **dj** hobetsi behar duke, salbu eta era ofiziala j-duna den kasuetan.

Bostgarrenik, **w** grafemak estatu-izenetan sortzen duen problema dugu. Exotoponimia txikiko geografia-izenetan w letra bere horretan uztea hobetsi behar den bezala, estatu-izenetan ere mantendu behar dela uste dut. Ruanda, Suazilandia, Botsuana eta Zinbabue izkiriitzea, gaztelaniak ere urratu ez duen bidetik abiatzea litzateke, hizkuntza honetan Swazilandia, Rwanda, Botswana eta Zinbabwe formak baitira normalean hortik korritzen direnak; eta honelaxe izkiriitzen dira atlas gehienetan, El País kazeta madrildarrak bere *Estilo Liburuan* ematen dituen aginduak gorabehera. Kasu honetan, beraz, afrikar estatu-izen hauen grafia

internazionala hobetsi behar dukegu, w-duna alegia.

Seigarrenik, **bh** eta **th** grafemei buruz ere izkiriatu nahi nuke zerbait ene eritziaren azalgarri gisan. H-dun grafema hauek dituzten Bhutan eta Ethiopia, gaztelauek egiten duten moduan, Butan eta Etiopia bilakatu nahi dituzte Hegoaldeko jendek. Haatik, gaztelaniaz izkiriaren dutenen artean guttitan eta bakan errespetatzen den araua da **h** letra edekitzekoa Bhutan-en kasuan. Grafema hauek alfabeto latinoan erabiltzen duten hizkuntza afrikar eta europar hedatuenetan erabiltzen badira ez duket egoki ikusten espainiarren lixterra hobestea, Ipar Euskal Herrian Ethiopia eta Bhutan forma izkiriatuak korritzen direla ahantzirik.

Zazpigarrenik, arabierazko exotoponimo zenbaiten bukaerako m/n letren arazoa ukitu nahi nuke. Khartum eta Jerusalem grafiak hobestearen aldekoa naiz, honetarako hiru arrazoi nagusi ditudalarik: Iparraldeko joera eta tradizioa honelakoak direlako; hizkuntza arrotz gehienetan m-dun bukaerak erabiltzen direlako; bukaera honen transkribaketa fonologikoak m-z izkiriitzea agintzen duelako eta ez n-z, espainiarrek egiten duten bezala (Jerusalén eta Jartún).

Itsaso-izenak eta patronimikoak dauzkaten exotoponimoak

Itsaso-izenei nagokiela, ordea, nik Elhuyar kultur elkartearen proposamena hobetsiko nuke. Itsaso Beltza, Itsaso Hila eta abar izkiriitzeak on egin diezaioke euskarari, Itsas Beltza, Itsas Gorria eta honelakoak

hautatzea, aldiz, kaltegarri dateke, izena+adjektiboa egituran **itsas** forma **itsaso** hitz osoaren ordez erabil bait liteke. Itsas forma hitz elkartuetarako lagatzea dateke logikoena, bestea ere izkiria/erran daitekeen arren.

Bestalde, badira exotoponimoak, bataio-izenak eta patronimikoak dituztenak. Arazo honetaz, lehenbizi, tradizioetik datozen formak ere aintzakotzat hartu behar ditugula erran behar dut. Elhuyar-ek eginiko zerrendan Bizente, Jakobo, Elena, Pedro erak hobesten dira. Nik, ordea, Bikendi, Jakobe edo Jakob, Helena eta Petri hautatuko nituzke. *Munduko leku-izenak* deritzon liburuan eginiko hautua ona iruditzen zait, non kasurako *Bering Itsasartea*, *Frantzisko Jose Lurrealdea*, agertzen baita; aposizioa erabiltzeak zilegi izan behar du zalantzarik gabe, genitiboa eranstea ere onetsi behar den bezala, *Bering-en Itsasartea*, *Frantzisko Joseren Lurrealdea* alegia. Bering itsaso eta itsasartearen kasuan aposizioa erabiliz gero, exotoponimo hau lekuzko genitiboarekin (Bering-eko) jartzea ekidin daiteke. Patronimiko honek genitibo edutezkoa eraman behar luke, Vitus Bering esploratzaile daniarraren izena baitarama.

Transkripzio-arazoak

Bukatzeko, transkripzio arazoei buruz zenbait puntu argitu nahi nituzke, kazetariak kontu honetan dituzten zalantzak uxatzeko xedez.

Lehenbizi, alfabeto latinoz izkiriitzean ez diren zeinuek bi izaera dituztela erran beharra dago.

Badakikegunez, izaera fonetikoak dugu alde batetik, eta grafikoak bestetik.

Transkribaketa edo transkripzio hitzak adiera zabalagoa hartzen du transliterazio berbak baino. Transkripzioak (transcriptio) kontzeptu bi adierazteko balio digu: 1. izkribu baten kopia karakter-sistema desberdina erabiliz; 2. hizlaria mintzo dena eta ahoskatzen duena edo eskuarki izkiriartzen dena alfabeto fonetiko edo fonologikoaz izkiriartzea. Bestalde, transliterazioa, alfabeto arrotz bateko hitzak, irakurleagandik hurbilago dagoen beste alfabeto bateko berben bidez ordezkatzeta da, erreprezentaturiko soinu edo letra bakoitzak korrespondentzia edo kidetasuna duelarik. Izan ere, transliterazioa egitean ere hartu behar dira aintzakotzat aipaturiko bi mailak, grafematikoa eta fonologikoa.

Azken hamarkadetan ikusentzuteko komunikabideak asko garatu direnez, maila grafematikoan geratzea tamalgarria litzateke. Egungo irratilari eta telebistako berriemaileek exotoponimoen transkribaketa fonologikoak zein diren ere nahi dute jakin. Kazetari profesionalek sarritan enbaxadetara deitzen dute exonimoen ebakera nola egin behar den jakiteko. Haatik, beti ez da ahalgarri denbora horretan ematea. Berriemaileek liburutan non kontsulta ukan behar dute informazio hori hainbat arinen jasotzeko.

Transkribaketa eta transliterazio kontzeptuak estuki loturik daude, agertu berri dudana bezala, hizkuntza arrotz edo emaile eta hizkuntza hartzailearen

hotsek korrespondentzia ukan behar dutelako. Soinu edo hots biak hagitz urrun badaude elkarrengandik edota hizkuntza arrotzaren soinua zein den jakin ezik, transliterazioa ontsa egiteko aukera gutti daude, laster ikusiko dugun bezala.

Menturaz, euskaldunok gutti izanki, beste alfabeto batzu dituzten hizkuntzen soinuetan orotan sakontzeko zailtasun handiak ukan ditugu. Dena den, emeki-emeki izanik ere, guztion artean, transkribaketek sortzen dituzten problemak soluzionatuko ditugulakoan nago.

Elhuyar-en eta Eguzkitza eta Palazio-ren liburuen artean badira zenbait diferentzia alfabeto errusiar kirilikoan transkripzioan. Alde batetik, eta Geografidatutegia liburuaren egile naizen aldetik, zenbait okerkuntzaren berri eman behar dut, **ѣ** eta **ѥ** zeinuek, hots, zeinu gogorak eta zeinu bigunak, ez batak ez besteak ez baitute grafemakiderik alfabeto latinoan duten hizkuntzetan. Zeinu hauek ez dute fonemakiderik gure hizkuntzetan, errusieran zeinu hauek diakritikoak izanagatik. Bestalde, **ѣ** zeinuan hobe izan zatekeen mako artean **и** laburra dela jarri bagenu **и** zeinutik bereiztearren. **ѣ** letrari dagokionean, baita **ю** grafemari dagokionean ere, zeinu hauek hitz-hasieran doazenean euskal hizkuntzan j-z transkribatzea ona litzatekeela erran behar dut. Bestalde, **и** zeinuan, i gogorrean alegia, apika **і** erabiltzea ere zilegi dateke.

Elhuyarkideek errusieratik eginiko transliterazioan diferentzia nabarmena

ondoko zeinuan datza: Ц letran. *Tze* bezala izendatzen den letra honen baliokidea euskaran *tz* grafema izan behar da ezinbertzez, euskal hizkuntzak ingelesak, frantsesak eta abarrek ez bezala, soinu propio hau baitauka. Letra hau daraman toponimo bat ipintzearren, Т И Х О Р Е Ц К hiria aipa dezakegu; Stavropol eta Azov Itsasoaren artean dagoen hiri honen izenak euskarazko transkribaketa egitean Tikhorietsk forma hartu behar du eta ez Tihoreck edo Tijoretsk espainiarrek egiten duten legez. Kasu bera da **tsar** hitz mailegatu eta arruntarena; berba hau euskaraz **tzare** formaz eman behar dukegu, singularrean zein pluralean hobeto moldatzen delako gure ortologiara, baita bere grafia jatorrizkotik hurbilago dagoelako ere. Baina *tze* letraz gain, bada bertze diferentzia bat E grafema kirilikoan. Elhuyarkideek E eta Э artean ez baitute diferentziarik egiten. Errusiarrendako, alta, E grafemaren baliokide fonetikoa /je/ da, **ie** alegia. Maileguzko hitzen E guztiak **e** transkribatzen dituzte Elhuyar-enean, hau da, /e/ bezala. Izan ere, E letra **ie** ahoskatu/izkiriatu behar da salbuespen bi jarriz: hitz hasieran **je** idatz daiteke, eta bigarren salbuespena, ezagunak diren hiru hiri-izenen kasuan **e-z** transkriba daiteke, maiztasun handiagoko exotoponimo direlako: Kiev, Odessa eta Arkhangelsk (hiri-izen hauek **Kiiev**, **Odiessa** eta **Arkhangielsk** ahoskatzen dira). Egunkariaren *Estilo Liburuan*, onestekoa datekeen beste arau bat ematen da kirilikotiko transkribaketa egiteko orduan aintzat hartzeko:

“Aurreko taula aplikatuta, transkripzio baten ondorioz, bi **i** elkarrekin geratzen badira, bat ezabatu egingo dugu. Adibidez: Gorkij > Gorkii > Gorki”⁹.

Geografidatutegia izeneko liburuari dagokionez, beste bokal bat falta dela aipatu beharra dago. Konkretuki, **ë** zeinua ez da agertzen. Grafema honen transkribaketak **io** eman behar du errusiarrek erraiten duten bezala. Haatik, egun, transkripzioa egitean problemak erideiten ahal ditugu, maiz **e** letra gaineko bi puntu diakritikoak kentzen ohi baitira izkiriartzean. Hortaz, berriemateak ahalegin berezi bat behar luke egin, ahoskatu aurrez forma zuzena zein den jakiteko, hots, **ie** ala **io**. Honetarako enbaxadara deitzea luke bide zuzenena.

Errusierak 10 bokal ditu, berauen transkribaketa honela geratzen delarik: a (a), o (o), y (u), ы (i), и (i), э (e), e (ie), ё (io), ю (iu), я (ia). Gorago aipatu dudan **Odessa** adibidera itzuliz, derradan hasierako **o** hori, transliterazioan **o** bezala mantendu behar dugula eta ez **a** jarriz, batzuk pentsa dezaketen bezala, Ukrainian (edo Ukrainan), errusiarrek ez bezala, **o** fonema baliatzen baitute exotoponimo hau ahoskatzean.

Eranskinean, Sovietar Batasun ohiko hiri-izen zenbait transkribatuta agertzen dira, baita Elhuyar-koek exotoponimo horietan eginiko hautua ere.

Bestalde eta txinatarren hizkuntzara aldatuz, onomastikan forma bikunak ikusi ditugu txinerazko izenak karakter

latindarretara transkribatzean. 1979. urtea baino lehen Mao Tse Tung forma ikusteko ohituta bageunden, orduz geroztik Mao Zedong erak arrakasta erdietsi duela aipatu beharra dago. Beronen arrazoia oso sinplea da, azken 13 urte honetan txinatarrek beraiek asmatuiko *pinyin* izeneko sistema erabili baita grafien anizkuntasunetik itzurtzeko. Sistema honetan ingelesaren fonetikak eragin handia ukan du.

Pinyin sistema erabilirik ere, beti ez dugu asmatuko jatorrizko ebakerekin, transkripzio honetako zenbait grafemak ez baitute baliokiderik euskararen sistema fonologikoan, gaztelanian gertatzen den antzera. Alberto Gómez profesoreak ondo azaltzen digunez, txinatarren ebakera batzutan bestelakoa da:

“Gure berriemak adierazten digunaren arabera, «herri honetako kantzilerraren izena Qian Qichen, gaztelaniazko Quian Quichen formaz izkiriatzeko, zeren q-a espaineraren ch-ren kidea baita...». Hau da, gaztelaniazko transkripzio zuzena Chian Chichen izan behar da... baina Txinatik igorritako oharrak segitzearren, gure hizkuntzan «kian kichen» irakurtzen den grafia erabili behar dugu”¹⁰.

Kazetetako idazgeletan sarritan zalantza sortzen da Wade-Giles deritzon transkripzio-sistema oraindik puri-purian dagoelako, batez ere Hong Kong, Singapore eta Taiwan-dik iristen diren exonimo latindartuen aitzinean. Haatik, azken herri hauetan eginiko

hautua errespetatu behar dugula ustedut, baita Txinako exonimoendako den pinyin sistema ere, jakina.

Hizkuntzalariek eta filologoek beren ikerketetan erabiltzen dituzten transkripzio zientifikoek zehaztasuna bilatzen dute. Eta transkribaketa zehatzak egiteko bihurtgarritasuna (reversibility-a) behar da, hots, izen transkribatua ezagutua izan beharra dago jatorrizko hizkuntzan. Prentsa izkiriatuan eta ikusentzuteko komunikabideetan, hasieran aipaturiko lan egiteko moldeagatik (presagatik), zehaztasun hori beti lortzea zaila bada ere, kriterioak finkatu behar dira eta urratsak ematen hasi ahoz zein izkiriatur, jatorrizko formak errespetatzeko.

Larriki erranik

Eta honexekin bukatuko nuke, ingelesek ongi asimilaturik daukaten kriterio hau, errespetatzearena (tiletak eta guzti), orohar positiboa delako salbuespenak salbuespen. Bestalde, exonimiaren ortografia eta ortologiaren afera honetan Ipar Euskal Herriko joera maizago aintzat hartu behar dukegu.

Prentsa arrotzean euskal herrien izenak grafia sinplista eta errespetu guttikoan ez ikustea atsegin dugun bezala (bazter bitez Guernica, Echevarri, Pachi, Iciar...), euskal kazetariak ere bazter utzi behar dute azken urteotan nabari izan den joera «fonetiko», hau da, exonimoak, ahoskatu bezala izkiriatzeko joera, hitzek, elheek edo berbek izaera bisuala ere daukatela ahantzirik.

Oharrak

- 1 Gómez Font, Alberto. *Problemas de transcripción, onomástica y toponimia* artikulua *El idioma español en las agencias de prensa* deritzon liburuan agertua (ikus bibliografia), 108. orr.
- 2 Ipar Euskal Herritik hurbil dauden zenbait hiri eta herrik euskal izena dutenez gero, interesgarri da oso *Euskaldunon Egunkariaren Estilo* Liburuko 187. eta 188. orrialdeetan dagoen zerrendari behako bat ematea.
- 3 Exotoponimoak euskaratzeke utzi ditut, gaztelaniaz alegia.
- 4 *Euskaldunon Egunkariaren Estilo* Liburuan **San Petersburg** forma okerra agertzen da.
- 5 Ikus Ibon Sarasolaren *Exotoponimoen euskal formaz* izeneko artikulua.
- 6 Hauetako forma batzuk dagoeneko izkiriaturik ikus daitezke. Forma zuzenak, ordea, *bost edo bortz, maila, zerk, geologia, agenda eta Sankt Peterburg* dirateke.
- 7 Ikus *Exotoponimoen euskal formaz* izeneko artikulua.
- 8 Horrexegatik deitzen dira **diakritiko**, hots, *diakritikos* hitz grekotik (bereizgarri, ezaugarri).
- 9 *Euskaldunon Egunkariaren Estilo* Liburua, 69. orr.
- 10 Op. cit. 116. orr. Itzulpena neuk egin da (pertsonezko izena jatorrizko testuan bezala agertzen da).

Bibliografia

- * EFE AGENTZIA. *Manual de español urgente*. Cátedra argit., Madril, 1987⁴.
- * EGUZKITZA A. eta PALAZIO, G.. *Geografidatutegia. Geografia-izen arrotzen ortografia eta ortoepia finkatzeko saioa*. EHUko argitalpen-zerbitzua. Bilbao, 1991.
- * ELHUYAR. *Munduko leku-izenak (euskaraz emateko erizpideak eta izendegia)*. Donostia, 1990.

- * ELHUYAR. Munduko leku-izenak liburuaren inguruan (I eta II). *Euskaldunon Egunkarian* agertua (1991-V-28 eta 30ean).
- * EL PAIS EGUNKARIA. *Libro de estilo de El País*. Madril, 1980² eta 1990³.
- * EUSKALDUNON EGUNKARIA. *Euskaldunon Egunkariaren Estilo Liburua*. Donostia, 1992.
- * FUNDACION GERMAN SANCHEZ RUIPEREZ. *El idioma español en las agencias de prensa*. Madril, 1990.
- * IRIGOIEN, Alfonso. *Euskal Herritik kanpoko leku-izenez*. 1991/XII/6.
- * IRIGOIEN, Alfonso. *Geografidatutegia* liburuaz. 1992/1/14.
- * KINTANA, Xabier. Munduko leku-izenak liburuaren inguruan (I eta II). *Euskaldunon Egunkarian* agertua (1991-V-14 eta 16an).
- * KINTANA, Xabier. *Exonimi Batzordekideentzat (Elhuyar-ek prestatuturiko lanaren inguruan)*. 1992.
- * KINTANA, Xabier. *Exonimoez*. 1992.
- * KRUTWIG, Federiko. *El problema de los exotopónimos y otras cuestiones de ortografía y cultura*. 1992.
- * KRUTWIG, Federiko. *Exotopónimos*. 1992.
- * LIZUNDIA, Jose Luis. *Euskal exonimoez*. Bilbo, 1992.
- * MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier. “Estatu-izenak”. *Euskera*, 1975. 20.373-87.
- * MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier. *Izen berezien inguruan*. 1992.
- * OREGI GOÑI, Eneko. *Exotoponimoei buruzko ohar zenbait*. 1992-12-03.
- * SARASOLA, Ibon. *Exotoponimoen euskal formaz*. Donostia, 1991-XI-29.

Herria azdizkaritik (1991-92)
jasotako zenbait exotoponimo (hiri- eta
estatu-izenak):

Oharra: mako artean eta letra
makurrez doana, neuk jarritako
informazio lagungarria da. **I**
zeinuak maiztasuna adierazten
du, hots, zenbat biderrez
errepikatzen den forma bakoitza
(artikuluko bat baino ez dut
jarri) bat bakarra erabiltzen ez
den kasuetan; **I** zeinua agertzen
ez bada arrazoia ondokoa da:
maiztasun beretsukoak dira biak.

Afghaniztan
Afrika
Alamania, Alemania
Albania
Alger
Aljeria, Algeria (III)
Alma-Ata
Angola
Ankara
Arabia sauditar
Argentina
Australia
Autrixia
Azerbaidjan, Azerbaidjania
Bangkok
Belgrad
Beljika
Benezuela
Berlin
Beyrouth
Bonn
Bosnia
Bosnia-Herzegobina
Brest
Bruxelles
Bulgaria

Danemarka
Djibouti
Dresde
Dubrovnik
Egypto
Erroma
Errumania
Errusia
Eslobenia
Espainia
Estonia
Ethiopia
Fidji
Finlanda
Frantzia
Genoba
Georgia
Grezia
Guatemala
Haiti
Hegoko Afrika
Holanda
Ingleterra, Ingleterra (II),
 Angleterra
Irakia
Iran, Irana
Irlanda
Italia
Izrael
Japonia
Jordania
Jugoslavia (III), Jugoslavia
 (I)
Kaboul
Kamerun
Kanada
Kanbodjia
Karabakh
Kazakhstan
Kebeka
Kiev
Kinshasa (Zaire)
Kolonbia
Kongo

Koweit
Krimea
Kroazia
Kuba
La Haye
Letonia
Liban
Libya
Lisboa
Lituania
Londres
Luxembourg
Maastricht
Madagaskar
Maroka
Marrakech
Maurice ugarte
Mazedonia
Mendebaldeko Sahara
Mexiko
Minsk
Moldabia
Montenegro
Mozku
New-Hampshire
New York
Nigeria
Oman
Ouzbekistan
Pakistan (II), Pakiztan
Pekin
Phnom Penh (Kambodia)
Polonia
Praga
Salbatore (El Salvador)
San Petersburgo
Sarajevo (I), Sarajebo
Sebilla
Serbia
Sierra Leone
Slabonia (Jugosl.)
Sobietiko Batasuna
Somalia (II), Zomalia
Syria

Tadjikistan
Taiwan
Taxkent
Tbilissi
Thailanda
Togo
Tonga
Tunisia
Turkia
Txad
Txekoslovakia
Ukrainia (I), Ukraina (III)
URSS (URSS-aren plazan...)
Vanuatu
Varsovia
Vietnamia
Vukovar (Jugosl.)
Washington
Xina
Zagreb
Zaire

Herria aldizkarian agertzen
diren zenbait jende-izen:

Aleman, Aleman
Amerikano
Angles
Armeniano
Azerbaidjandar
Erruso, Ruso
Europano
Flamandar
Frantses
Georgiano
Iraniatar
Irlandes
Izraeldar
Japones
Judu
Kanadiano
Kanbodjiano
Kroaziatar
Kurdes (*kurdo*)
Libandar
Libyano
Mahometano
Marokano
Omandar
Paleztindar
Serbiatar
Syriano
Togotar
Walondar
Xinatar

Herria astekaritik harturiko
zenbait patronimiko:

Oharra: patronimikoen ondoan
eta mako artean izen-deituren
erreferentziatzat jo daitezkeen
herriak edo erakundeak agertzen
dira.

Boutros Ghali (NBE)
Chadli (Aljeria)
Chevardnadze
Eltsine
Fidel Kastro
Gamsakhouria (Georgia)
Georges Habache (Pales.)
Kadhafi kolonela
Mikael Gorbatxev
Milosevic
Mohamed Budiaf (Aljeria)
Shamir
Sihanouk printzea (Kamb.)
Stalin
Tudjman (Kroazia)

Hona hemen SESB ohiko zenbait hiri- eta nazio-izen:

<u>G. Palazio</u>	<u>Elhuyar</u>	<u>errusiera</u>
Arkhangelsk	Arkhangelsk	АРХАНГЕЛЬСК
Astrakhan	Astrakhan	АСТРАХАНЬ
Barnaul	Barnaul	БАРНАУЛ
Briansk	Briansk	БРЯНСК
Gorki	Gorki	ГОРЬКИЙ
Irkutsk	Irkutsk	ИРКУТСК
Jaroslavl	Jaroslavl	ЯРОСЛАВЛЬ
Kalinin	Kalinin	КАЛИНИН
Kaluga	Kaluga	КАЛУГА
Kazan	Kazan	КАЗАНЬ
Kiev	Kiev	КИЕВ
Kirov	Kirov	КИРОВ
Khabarosc	Khabarosc	ХАБАРОСК
Kurgan	Kurgan	КУРГАН
Magadan	Magadan	МАГАДАН
Mosku	Mosku	МОСКВА
Novosibirsk	Novosibirsk	ИВОСОИБИРСК
Odesa	Odesa	ОДЕССА
Omsk	Omsk	ОМСК
Oriel	Orel	ОРЁЛ
Pienza	Penza	ПЕНЭА
Pierm	Perm	ПЕРМЬ
Rostov	Rostov	РОСТОВ
Saliekhard	Salekhard	САЛЕХАРД
Saratov	Saratov	САРАТОВ
Siktivkar	Siktivkar	СЫКТЫВКАР
Smoliensk	_____	СМОЛЕНСК
Sukhinitxi	_____	СУХИНИЧИ
Svierdlovsk	_____	СВЕРДЛОВСК
Tambov	Tambov	ТАМБОВ
Tiumen	Tiumen	ТЮМЕНЬ
Tomsk	Tomsk	ТОМСК
Ukrainia	Ukrania	УКРАИНА
Ulan-Ude	Ulan Ude	УЛАН - ҮДЭ
Vladimir	Vladimir	ВЛАДИМИР
Vladivostok	Vladivostok	ВЛАДИВОСТОК
Volgograd	Volgograd	ВОЛГОГРАД
Vologda	Vologda	ВОЛОГДА
Zaporodjie	Zaporojie	ЗАПОРОЖЬЕ